

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 2990

*AGINDUA, 2018ko maiatzaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, Arabako Lautada farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errola berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Bada, datu ofizial horien azterketatik ondorioztatzen da Arabako Lautada farmazia-eskualdean farmazia-bulego berri bat irekitzea bidezkoa dela.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

1.– Deialdia egiten da Arabako Lautada farmazia-eskualdean beste farmazia-bulego bat sortzeko, farmazia-bulegoak sortzea, lekuz aldatzea, ixtea eta jardunean jartzea arautzen duen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuan xedatutakoarekin bat (otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

2.– 11/1994 Legearen 13. artikuluan xedatutako irizpideekin eta 2018ko biztanleriaren datuekin bat, deialdiko farmazia-bulegoa Aguraingo udalerrian kokatu beharko da.

3.– Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabetekoa izango da.

4.– Aipatu eskabideak ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsita aurkeztu beharko dira, 24/2004 Dekretuak emandako idazkeran.

5.– Eskabideak aurkezteko lekuak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoez gain):

Osasun Saila  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz.

Arabako Lurralde Ordezkaritza  
Olagibel kalea 38  
01004 Vitoria-Gasteiz.

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza  
Antso Jakitunaren kalea, 35  
20010 Donostia

2018ko ekainaren 8a, ostirala

Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza  
Errekalde zumarkalea 39  
48008 Bilbao

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 22a.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.